

Itsasbazterreko Bidea

MAILA
3

ERTAINA

DONIBANE LOHIZUNETIK HENDAIARA



La corniche basque.

Itsasbazterreko bidearen bigarren zatiak ikuskari ederrak eskaintzen ditu Ziburuko portutik Hendaiakoraino. Ibilbidea erlantz estu batetan doa, errepide eta itsaslabarraren artean. Behin Abbadiako naturgune babestua pasa ondoren, bideak Hendaiako Hondarraitz hondartza ederrera eta Txingudi badiara darama.

Abiapuntura heltzeko :

A63ren 3. irteeratik, N10a hartu, Donibane Lohizunerantz. 1,9km egin eta, polizia etxearen ondoko zirkulazio argiaren parean, ezkerretara hartu. Hurrengo zirkulazio argian zuzen-zuzen jarraitu eta trenbide gaineko zubia pasa. Berehala, Habas karrikan, eskuin hartu. Passicot aparkalekura joan (dohan). Oinez Luis XIV.aren plazara joan.

Itzultzeko :

Hendaiatik Donibane Lohizuna, ATCRB ohiko autobus linea. Ordutegiak eta tarifak: 05 59 08 00 33.

D Lehen N10 zen oraingo D810aren Urdazuri ibaiaren gaineko zubiraino joan eta Ziburu aldera zeharkatu (arrantzaren gaineko informazio taulak). Zubiaren amaieran, eskuin jaitsi eta zuzen-zuzen jarraitu, portuaren bazterrean. Andramariaren estatua bat pasa. 300m ibili eta eskalera batetik jaitsi, kai bateraino; bertan badiaren historia azaltzen duten informazio taulak daude **1** (607021 4804811). Aitzin eginez, beste maila batzuetan gora egin berriro eta errepidearen bazterretik segi, Zokoako zubia pasa, eskuinetara hiribide bat hartu eta portuaren itzulgingurua egin. Behin beste aldera iristean, bi aldiz eskuin jira, xendra batetik, eta goian burnizko masta bat duen muino batera heldu, erlantzaren hegian. **2** (606288 4805506). Gero, erlantzaren eta errepidearen artean egokituriko xendrarri jarraitu. D912 eta D913 errepideak lotzen diren tokian, Bunker baten atzetik pasa, errepidetik une batez aldentuz. Erlantzaren sakongune batean Euskal haztegi edo Viviers Basques senaiara heltzen da (itsasegiko ekosistemaren gaineko informazio taulak) **3** (604300 4804593). Erlaitzean

2h00

2h10

2h35

3h00

gora joan: xendra noizta-noizta errepidetik aldentzen da. Jaitsiera baten ostean, eskuin hartu, Haizabia etxaldera sartuz **4** (602641 4803742). Itsasegian den etxe baten itzulgingurua egin eskuinetik, zubi bat pasa, maila zenbait igo eta xendrarri jarraitu. Abbadiako sarrera pasa eta gero, Asporotzeko arrantzaleen apariluetara heldu **5** (602120 4803701). Xendran aitzin segi, noiz larren artean, noiz basotxoetan. Bidegurutzte orotan eskuineko bidea hartu, Salou, bide erdian, Loiako badiara jaisten dena. Santa Ana muturreraino joan; bertan bunker bat dago eta gainean haizeen arrosa bat. **6** (601100 4804254). Itsaslabarraren gainean segi, xendrarri jarraituz, babeserako oholesiak zeharkatu gabe. Urrutira bi harkaitz: Dunba zabala eta Dunba luzea. Behin Larretxera (Abbadia eremuko animazio etxea) heldutakoan, eskuinera jaitsi, naturgunearen sartze xeilaraino (600795 4803386). Itsasbazterreko bideak aparkalekuaren behealdetik jarraitzen du, hondartzan barrena, ezkerretara, 350m inguru. Gero Hendaiako digari jarraituz, Bidasoaren itsasadarreraino.



D Donibane Lohizune – Luis XIV.aren plazan
(608261 4804644)



3h



11,8km



292m

Kartografia : pays basque ouest / rando éditions

GPS (WGS84-UTM-30T)

GPS koordenadak hemen eskuratu: www.rando64/fr

Ikusi beharrekoa :

- Donibane Lohizuneko Badia.
- Euskal erlaitza.
- Abbadiako naturgune babestua.
- Hendaiako Hondarraitz hondartza.

- Abbadiako naturgune babestuan ezin dira zakurrak eraman.
- Txirrindaz ez ibili.

Seinaleztapena : "Itsasbazterreko bidea".

Abbadia gaztelua

Itsaslabarren gainean, Hendaiara, "Dunbak" aitzinean dituela, Abbadiako gaztelua ageri da eder. 1864. eta 1879. urteen bitartean eraiki zuen Viollet-le-Duc-ek. Arkitektura neogotikoa eta dekorazio aberatsekoa da eta jabeak ekialderako zuen jaidura biziaren kutsua ageri du nonahi. Antton Abbadia (1810-1897), esploratzaile, geografialari, hizkuntzalari eta astronomialaria abenturari emana bizitu zen. 1895. urtean bere lurrak Zientzia Akademiari eman zizkion; akademiaren lehendakari izana zen 1892. urtean. Akademiaren fundazioak hark abiatu bideari jarraitu zion eta gaztelua zientziaren kultura hedatzeko toki bihurtu zuen.
Informazioa: www.academie-sciences.fr/Abbadia.htm



Informazio gehiagorako :

Donibane Lohizune-Hendaiako Euskal Lur eta Itsasegin Turismo Bulegoa (Terre et côte basques).

Tel : 05 59 26 79 62

www.terreetcotebasques.com